

XII. IPUIN LEHIAKETA



ARRIETA: 94 615 30 65

FRUIZ: 94 615 32 10

GAMIZ-FIKA: 94 615 31 14

MEÑAKA: 94 674 21 01

Aurkibidea

• Agurra	2	II. Kategoria (7-8 urtekoena)	8
• Parte hartzaileak eta epaimahaikideak	3	III. Kategoria (9-12 urtekoena)	14
I. Kategoria (5-6 urtekoena)	4	IV. Kategoria (13-17 urtekoena)	21
		V. Kategoria (18 urtetik aurrera)	24

AGURRA

Herritar hori,

Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika eta Meñakako Udalek antolatutako Ipuin Lehiaketaren beste edizino bat igaro da: XII. edizinoa! Ez da, baina, horrenbeste edizino igaro arren, fruitu ederrak jasotzeari itxi; alderantziz, esango geunke guk!

Baina azken ipuin lehiaketaren barri zuoi emoteko, zer hoberik, lanetako batzuk danon aurrera ekarri eta zeuok baloratzea baino.

Gure gomendio bakarra: lanok irakurtzeko tartetxo bat hartzea -ezusteko polita hartuko dozue-, eta datorren lehiaketarako animatzea.



Edume Torrealdeai Erezuma
Arrietako Udaleko alkatea



Jose Luis Elgezabal Orbe
Fruizko Udaleko alkatea



Mª Jesus Menica Bengoechea
Gamiz-Fikako Udaleko
alkatea



Aitor Ugarte Torre
Meñakako Udaleko alkatea



Bi berba baino ez, Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika, Meñaka eta inguruko lagunok:

Ez da aspaldi zuekin egon nintzena zuen seme-alabekin ipuinen tailerra egiten, eta ipuinak kontatzen eta idazten dugunontzat, plazer hutsa bilakatu zen esperientzia hura.

Idatzi eta kontatu ditzagun ipuinak.

Ipuinik hunkigarrienak eta osasungarrienak, zalantza barik, gurasoek seme-alabei kontaturikoak ditugu. Kontu-kontari jardunez, seme-alabei heziketarako funtsezkoa den beste bitamina bat ematen dugu, hau da, M bitamina,

Maitasunarena. Umeei ipuin bat kontatuz, maitatzen eta baloratzen ditugula diotsegu eta aintzakotzat hartzen ditugula ere.

Liburu honetan ipuinak idatzi egin dituzue, barru-barrutik, gainera. Jarraitu eginkizun horretan. Idatzi, egin amets, ipuina irakurriko duenak bidaia ederra egingo du eta.

Eta haiek bizi baziren zorionsu,
gu ere bizi gaitzela,
haiek bezain berdintsu.

Antton Irusta Zamalloa

XII. IPUIN LEHIAKETA

PARTE HARTZAILEAK 2009

- AROSTEGI RODRIGUEZ ANE
- AROSTEGI RODRIGUEZ LIBE
- BABIO BASTERRETXE LEIRE
- BENGOTXEA GALDONA ARAITZ
- BENGOTXEA GALDONA OIER
- BILBAO BERRIO UXUE
- CIRIERO OTAZUA NEKANE
- CUEZVA LOBATO JUNE
- DIEZ ROBERTSON ELIA
- ENZUNZA MALLONA AINHOA
- ENZUNZA MALLONA IRATI
- ENZUNZA MALLONA OLATZ
- ELGEZABAL MONASTERIO GOIAZ
- ETXEBARRIA ELORDI ITZIAR
- FAYANAS GANGOITI GAIZKA
- GALLASTEGI GOMEZ OLAIA
- HENDERSON MADARIAGA DEKLAN ENAUT
- HENDERSON MADARIAGA KIERA ELAI
- HERNAEZ LAVIÑA ESTIBALIZ
- LEKUE ETXEBARRIA NAIA
- MADARIAGA CIRIA ANE
- MARINA VALLE ARITZ
- MARKOS RIVERO BINGEN
- MARKOS RIVERO CRISTINA
- MARTIN ZUGAZAGA ALAZNE
- MORA PEREZ ARITZ
- MUNIOZGUREN AROSTEGI ANTON
- MUNIOZGUREN AROSTEGI BITTOR
- NARBAIZA ETXEANDIA ALBERTO
- OLAZAR BARONA IAN
- OLAZAR BARONA LEIRE
- ORBE ETXEBARRIA JOANE
- REICHENBERGER CABALLERO IRATI
- ROMAN GANUZA ALIZE
- ROMAN GANUZA ENETZ
- URKIAGA AYO OLATZ
- ZARANDONA ZIARRETA PEIO



EPAIMAHAIKIDEAK

- AZKETA RIKE LEIRE
- BARAIAZARRA TXERTUDI PILARE
- IRUSTA ZAMALLOA ANTON
- MURUAGA GEZURAGA IKER
- YARTO GOIRI AITZBEA

I. Kategoria
(5-6 urte bitartekoak):
Marrazkiak

I.SARIA

Egilea: June Cuezva Lobato

Adina: 6 urte

Herria: Arrieta

HAURRA JAIO DA



II.SARIA

Egilea: Olaia Gallastegi

Adina: 6 urte

Herria: Arrieta

SORGINTXOA



III.SARIA

Egilea: Alize Roman Ganuza

Adina: 6 urte

Herria: Meñaka

EGIPTOKO LAGUNAK



II. Kategoria
(7-8 urte bitartekoak):

Egilea: Oier Bengoetxea Galdona

Adina: 8 urte

Herria: Gamiz-Fika



Bazen behin katu bat, Mizi deitzen zen eta Gamiz-Fikako mendi batean bizi zen, etxola txiki batean.

Mizi nahiko txikia zen, zuri-beltz kolorekoa.

Etxean igeritoki bat zuen. Mizi oso kateme ona eta eskuzabala zen.

Behin, Mizik dantzan ikasi nahi zuen baina ezin zuen, dantza gizakientzako bakarrik zen eta.

Mizik lagun asko zituen: Matsus, Kata, Sisili... Miziren lagunek ere dantzan ikasi nahi zuten. Orduan Mizik proposatu zien euren artean dantza talde bat egiteko.

Lagunek baietz erantzun zioten, eta handik lasterrera 14 ikasle zituzten eta herriko jai guztietan dantzatzen zuten. Geroxeago, 14 ikasle gehiago ziren, hau da 28 ziren. Mixik proposatu zien bi dantza talde egitea eta baietz erantzun zuten eta bi dantza talde egin zituzten. Hiru hilabete geroago herriko jaiak ziren eta berak eta bere lagunak dantza askeak dantzatu zituzten. Hurrengo goizean alkateak esan zien ea mundu guztian dantzatu nahi zuten eta beraiek baietz erantzun zuten.

Mizi eta bere lagunak oraindik mundu osoan dantzatzen dute eta gure dantza ikastaroe-tako irakasleak Mizi eta bere lagunak dira.

Horrela Mizi eta bere lagunak euren ametsa egia bihurtu zuten, hala geureak ere egia bihurtu daitezten.



Egilea: Gaizka Fayanas Gangoiti

Adina: 8 urte

Herria: Fruiz

ITSASOKO PIRATAK

Bermeo herri txikia marinel herria zen. Egun batean marinelak Egeo itsasorantz abiatu ziren. Bidean zehar, ekaitz gogorrek eta tximistak hasi ziren. Marinelek ezin zuten gehiago jasan eta bat-batean olatu izugarri batek itsasontzia irauli egin zuen.

Biharamunean irla eder batean agertu ziren denak, baina kordel batekin lotuta. Piratek marinel guztiak bahituta zituzten. Baina marinelak lasai zeuden bazekitelako irla hartan piratek jaten zituen mamu bat bizi zela.

Bat-batean mamua agertu eta pirata guztiak banan-banan jaten hasi zen. Orduan marinelak mamuari esker Bermeorantz abiatu ahal izan ziren poz-pezik.



Egilea: Antton Muniozguren Arostegi

Adina: 7 urte

Herria: Gamiz-Fika

SAM BASOAN



Bazen behin basora joan zen mutil bat, Sam izenekoak. Baina galdu egin zen, zulo batera jausi zen eta, han behean, egurrezko etxe txiki bat zegoen.

Zulo hartan saguak bizi ziren, bi sagu ziren, Skids eta Mudflap izenekoak, eta bere lagun egin ziren. Alboko zulo batean Suri, beraien aita, bizi zen; ama hilda zegoen.

Hurrengo egunean mutila hamarretan altxatu eta saguekin jolastera joan zen. Itzuli zirenean saguak barruan ezkutaketara jolasten hasi ziren. Baina Mudflap kanpoan ezkutatu zen eta galdu egin zela pentsatu zuen. Baina ez zen galdu besteek zuloa tapatu zutelako izan zen. Orduan Skids kanpoan begiratzen hasi zen, Mudflap aurkitu eta barrura joan ziren. Geroago ohera joan ziren, Skids eta Mudflap ohetik jausi egin ziren. Samek jaso egin zituen. Baina Skids eta Mudflap itzarrik zeuden.

Eguna argitu zuen, Skids lurrian zegoen eta Mudflap bere gainean.

Samek oso ondo pasatu zuen Skids eta Mudflapekin baina bere familiaren hutsunea igartzen zuen. Horregatik saguek etxera itzultzeko lagundu zioten. Hala ere, oraindik ere, noizean behin, Sam zulora jaisten da bere lagunekin jolastera.



III. Kategoria
(9-12 urte bitartekoak):

Egilea: Leire Olazar Barona

Adina: 12 urte

Herria: Gamiz-Fika

URREZKO HIRU AHOLKUAK

Baziren behin, urruneko herrialde batean, senar-emazte txiro-txiroak. Egun batean, diru guztia agortu zitzairen eta senarrak kanpora joan behar izan zuen lan bila. Ibili eta ibili ondoren, baserri batera heldu zen. Hango jabeak bere baserrian lana eman zion hauxe esanez:

-Lan bila zabiltzala entzun dut eta nik zu beza-lako morroi indartsua behar dut baserrirako, baina hiru urte egon beharko duzu bertan lanean etxera joan barik.

Gizonak eskaintza onartu egin zuen. Lehenengo urtea igaro zen eta gizonak soldata eskatu zionean jabeak hauxe erantzun zion:

-Soldataren ordezkari bat emango dizut:
"Ez utzi bide zaharra bide berri ezezagun bat hartzeko".

Bigarren urtea pasatu zenean, gizonak soldata eskatu zion berriro jabeari eta orain-goan hauxe erantzun zion:

-Soldataren ordezkari bat emango dizut: "Ez geratu ostatu batean lo egiten jabea gizon zahar-zaharra bada eta neskato gaztearekin ezkondu bada".

Hirugarren urtea pasatu zenean, gizonak hiru urteko soldata eskatu zion eta orain-goan jabeak hauxe erantzun zion:

-Langile ona izan zara lagun, beraz hiru urteko soldata emango dizut baina baita azken aholkua ere: "Izan zaitez beti pertsona zintzoa".
Eta nire esker ona erakusteko, nire emazteak pastel hau egin dizu zure andreaki opari moduan emateko.

Gizona etxerako bidean abiatu zen pozarren. Halako batean merkataria batzuk aurkitu zituen bidegurutze batean. Merkatariek etxera hartzeko bide berri laburragoa zekitela esan zioten eta eurekin joatera gonbidatu zuten. Orduan, baserritarra lehenengo aholkuaz gogoratu zen eta ezetz esan zien. Betiko bidea hartu zuen. Hamar minutu igaro ostean, gizonak merkatarien oihuak entzun zituen urrunetik: "Lapurrak, lapurrak. Dirua ostu nahi diguteeee".



Gizona arin-arin zihoala etxerantz, gaua heldu zen eta ostatu txiki batera iritsi zen. Ostatua ia-ia beterik zegoen ehiztari talde batek bete baitzuen. Gure gizona hango jabearen emaztea neska gazte polita zela ohartu zenean, logela erreserbatu baino lehen senarra ezagutu nahi zuela esan zion. Hori ikustean, zaldiekin batera ukuiluan lo egiteko baimena eskatu zion, ehiztarien burlak entzuten zituen bitartean.

Hurrengo goizean, senarra hilda zegoela entzun zion handik igaro zen emakume bati. Emazteak ostatuan lo egin zuten bezeroei leporatu zien hilketaren errua eta polizia kartzelara eramane zituen. Baina gure gizonak ostatuan barik kortan lo egin zuenez, ez zuen polizia eramane. Bera joan zen polizia-rengana eta gau hartan ukuiluan zegoela entzun zuena esan zien: "Emazte gazteak eta lagun batek pozoitu zutela gizon zaharra ondasunak kentzeko". Poliziak ehiztari taldea askatu eta emaztea eta laguna sartu zituen kartzelan.



Handik egun batera etxera heldu zen eta emazteak pozaren pozez zorrotuta hartu zuen. Elkar besarkatu eta mokadu bat jan ostean, emazteak esan zion senarrari hiru urteko zergak zor zizkiotela erregeari.

Horrela senar-emazteak erregeari gaztelura joan ziren zorra ordaintzera. Hara heltzean errega ez zegoela esan zion morroi batek:

- Errega ez dagoela?! A, ba, berarentzat gauzatxo bat geneukan baina datorrenean emango diogu.
- Ez, lasai, nahi baduzue neuk emango diot.
- A, eskerrik asko, horrela ardura kenduko dugu.

Handik egun batzuetara errega bisitan joan zitzaion bikoteari:

- Noiz ordainduko didazue zor didazuen hiru urteko zerga?
- ZER? Barkatu baina guk ordaindu dizugu, zure gaztelura joan ginen eta ez zeundenez, zure morroiari eman genion.

Hori entzutean, morroia dirua lapurtzen zebilkiola konturatu zen errega. Erregeak morroia kalera bota zuen eta gizonari esan zion:

- Gizon zintzoa izan zara; inork dirurik eskatu gabe zeuek zeuetara joan zarete ordaintzera. Neure morroiaren lanpostua eskaini nahi dizut, eta gainera ondo ordainduko dizut.
- Eskerrik asko jauna, ohore handia da zure morroia izatea eta pozik onartuko dizut.

Etxera heltzean, gure emaztea sinistu ezinik zegoen eta euren zortea ospatzeko baserritarraren emazteak emaniko pastela bien artean jatea erabaki zuten, baina irekitzean... diru pila zegoela konturatu ziren!!! Eta baserritarra oso zuhurra zela.

Orduan ulertu zuen gure gizonak baserritarraren aholkuen garrantzia eta, aurretik, andra-gizonak lasai eta pozik bizi izan ziren.

Egilea: Irati Reichenberger Caballero

Adina: 9 urte

Herria: Arrieta

TXORI ASKEAREN KANTA

Bazen behin gizon bat txori asko zituena. Guztiak txori kantariak ziren, eta batzuetan azokan berri bat erosten zuen. Gizona oso harro zegoen bere txoriekin eta egunero begira egoten zen nola mugitzen ziren kaiola barruan.

Egun batean txori eder eta lirain bat bere habian ikusi zuen etxeko leihotik. Bere txoriek baino hobeto kantatzen zuela ikusita harritu egin zen, eta hiru arrautza zeuzkanez, bat hartu zuen. Hurrengo egunean hirurak jaio ziren. Laster kanpoan zeuden bi txoritxoak txio txio txio!!! ari ziren pozik, baina kaiolako txoritxoak bueltak eta bueltak ematen zituen kaiola barruan, triste eta negarrez abestu gabe. Gizonak ez zekien zergatik, bere anaiak beti abesten eta bera isil-isilik.



Bat-batean etxe aurrean zegoen txabolako leihoan emakume bat azaldu zen, eta ogi puskak utzi zituen. Txori guztiak hara joan ziren eta ogi puska guztiak jan ondoren kanta polit bat egin zuten. Orduan gizonak leihotik agurtu eta galdera bat egin zion:

- Nola egiten duzu txoriak zuregana hurbiltzeko?
- Ogi puskak utzitakoan hurbildu egiten dira eta eskerrak emateko kanta polit bat abesten dute.
- Ogi puskak utzita bakarrik txioka hasten dira?
- Bai, noski.
- Eskerrik asko, nola ez zait niri bururatu, neuk ere horixe egingo dut etxean.

Gizonak gauza bera egin zuen, baina txoriak ez ziren hurbildu eta haserretu egin zen. Hurrengo egunean, berriro emakumearengana hurbildu zen eta hauxe esan zion:

- Txoriak ez ziren hurbildu.
- Nik esandakoa egin zenuen?
- Bai.
- Orduan ez dakit zergatik, edo itxaron apur batean... bai, bai badakit! Zuk txoriak kaioletan dituzunez, haiek pentsatuko dute harrapatu eta kaiola batean sartuko dituzula.
- Aaa, ongi da, baina kaiolatik ateratzen badituz, etorri egingo dira?

- Baietz uste dut.
- Ez al zaude ziur?
- Esan dizut baietz esan ziur ez badakit...

Gizonak txoriak banan-banan aske utzi zituen eta azkenik triste egoten zen txoria ere bai. "Oso ondo, oso ondo!" –esan zion emakumeak-. Baina txori berezia bueltaka ari zen kaiola ondoan, urrundu gabe; zorabiatuta eta gaixorik zegoela zirudien. Orduan gizonak kaiola apurtu zuen, triste eta errudun sentitzen zen, txoria hil egingo zela pentsatuz. Kaiola apurtuta ikusi zuenean, txoria poz-pozik habiara joan zen, eta berehala anaiekin abesten ikasi zuen.

"Txio, txio, txio
entzuten da Arrietako plazan
txoriak daudenean

txoriak aske
beti daude pozik ta alai
txoriak triste
kaiolan beti triste daude
eta nik txoria nahi dut aske
eta nik
eta nik txoria nahi dut aske"



Emakumea eta gizona ezkondu egin ziren eta beti ogi puskek uzten zituzten leihoan, eta haien alaba beti txoriekin zebilen jolasean.

HALAN BAZAN EDO EZ BAZAN TXIO, TXIO, TXIO ENTZUTEN DA ARRIETAKO PLAZAN.

Egilea: Ian Olazar Barona

Adina: 10 urte

Herria: Gamiz-Fika

DENBORAN ZEHARREKO BIDAIA

Bazen behin Jon deituriko mutil jator bat. Oso langile eta eskuzabala zen. Arreba bat zuen, Kattalin izena zuen. Neba ez bezala oso berekoia eta alfer hutsa zen.

Egun batean auzoko etxe abandonatu batera sartu ziren pilotarekin jolasteko:

- Jon, beldur naiz -esan zuen beldurraren beldurrez Kattalinekin.

Jon ez zegoen bat ere beldurtuta baina pozik ere ez.

- Oso usain arraroa dago -esan zuen Kattalinekin-, pertsona usaina.

Jon harritu egin zen:

- Egia da, norbait dago hemen -esan zuen Jonen dardakadan.

Orduan norbaitek esan zuen:

- Lortu dut! Lortu dut! Azkenean denboran bidaiatzeko makina sortu dut! Ja, ja, ja, ja...

Jon eta Kattalin hurbildu egin ziren eta han betaurreko eta amantal zuridun gizon ile-hori bat zegoen. Ezkutatu egin ziren mahai baten azpian. Gizonak eskuetan burdinazko makina bat zuen eta Jon eta Kattalin ezkutatuta zeuden mahaiaren gainean utzi zuen.

Jonekin hartu egin zuen gizona begiratzen ez zegoela:

- Begira Kattalin, begira ze gauza arraroa.

"Tok" zarata bat atera zen makinatik.

- Zer egin duzu Jon? -galdetu zuen Kattalinekin.

Gizonak zarata hura entzun egin zuen eta mahai azpian begiratu zuen.

- Ume inuzentea, makina martxan jarri duzu! -oihu egin zion Joni gizonak.

Orduan Jon eta Kattalin desagertu egin ziren, hobeto esanda denboran zehar joan ziren nonbaitera.

Dinosaurioen garaian

- Ai, ai, min hartu dut -esan zuen Jonen- Non gaude? Gogoan dudan azken gauza gizon hark harrapatu egin gintuela da.

Kattalin isilik geratu zen, ez zion Joni entzun nahi. Orduan tiranosaurio rex bat hurbildu zen eta gu korrika hasi ginen. Konturatu ginenerako tiranosaurio rexa galdu egin genuen, kobazulo beltz, ilun eta sakon batean geunden.

U!U!U!U!GROA! antzeko orroa entzun genuen, hurbiltzean orro gehiago eta gehiago entzun genituen.

Antzinako gizakiak ziren! Eta gainera gure auzoko gizonarenaren moduko denboraren makina zuten!

- Gizaki atzeratu inuzenteak: etorkizunetik gatzoz eta zuek baino aurreratuagoak gara, horregatik emaguzue makina hori –esan zien Kattalinek oso harroputz eta munduko onena izango balitz moduan.

Jonek agirika egin zion:

- Kattalin! Gauza horiek ez dira esaten, gustatuko litzaizuke zuri esango balizute?

Kattalinek aurpegi txarra jarri zuen eta mesedez emateko eskatu zien. Antzinako gizakiek baietz esan zioten eta eman egin zioten.

Ez zekiten nola funtzionatzen zuen. Tok! entzun zen eta desagertu egin ziren berriro.



- Non gaude? –galdetu zuen Jonek.

Oso leku arraroa zen eta gainera jendeak oso arropa barregarriak zituen soinean. Orduan, andre batek txanpon bat bota zien eta zerbait esan zuen baxuan:

- Zenbat txiro dagoen.

Txanpona begiratu zuten eta ... Ikaragarria! Fernando erregearen aurpegia agertzen zen. Orduan konturatu ziren XV. mendean zeudela eta, bat-batean, Jonek irtenbidea aurkitu zuen etxera itzultzeko:

- Kattalin badakit nola joan etxera. XV.mendean bagaude, lehengo moduan makina bat egongo da. Aurkitu eta etxera joango gara.

- Oso ideia ona Jon baina... ez dakigu mundu osoko zein lekutan dagoen!! –esan zuen Kattalinek.

GRUOAN!

Zarata hura entzun eta desagertu egin ziren.

ETXERA BERRIRO

- UOOOO! –zarata egin zuen Kattalinek– Zer gertatu da?

Kattalinek ez zuen ezer ulertzen baina orduan Jon etorri zen:

- Kattalin, zer egiten duzu ohean botata? Etorri auzoko etxe abandonatura pilotarekin jolastera!

Kattalinek dena ulertu zuen, denboran atzera egin zuen!

Ezetz esan zion Joni eta ezer gertatu izan ez balitz bezala segitu zuten bere bizitza Jonek eta Kattalinek.

IV. Kategoria
(13-17 urte bitartekoak):

Egilea: Goiaz Elgezabal Monasterio

Adina: 13 urte

Herria: Gamiz-Fika

ISTORIO HAU IRAKURRI BAINO LEHEN

Pertsonaia hauek mitologikoak dira eta mitologian ongia eta gaizkia ageri dira.

Amalur = Lurraren izen bat da, pertsona mitologikoa, Eguzki da bere alaba. (Ongileak biak) Bere lana lurreko izakiei etxe bat ematea da. Pertsonaia mitologiko gehienak bertan egiten dute lan, bai ongileak bai gaizkileak.

Adegaxto = Pertsonaia mitologikoa (maltzurra). Baserrien aurka zuzentzen ditu tximistak.

Gaueko = Pertsonaia mitologikoa. Zaindaria.

MAITASUNA ETA GORROTOA TXANPON BERAREN BI AURPEGIAK DIRA

Amalurren baitan badaude izaki ezjakin asko munduaren zergatia eta benetako egia eza-gutzen ez dutenak; hau da, gizakiak eta animaliak.

Baina beste batzuk Amalurren benetako existentziaren zergatia dakiten pertsonaiak dira, hau da, egia errepresentatzen dutenak, (izaki mitologikoak) hauek badituzte urrezko lege batzuk. Lege horien haustek, Amalur eta espazioa arriskuan jartzen dute eta istorio honetan horietako lege baten apurketaz hitz egiten da. Hau da, ongiaren eta gaizkiaren arteko maitasun debekatua.

Istorio honetako protagonistak Eguzki eta Adegaxto dira eta bi pertsonaia hauek frogatu ziguten "gorrototik maitasunera pauso bakar bat dagoela".

Eguzki pertsonaia ongilea da. Bere eginkizun bakarra munduari argitasuna eta babesa ematea da, izpiritu, jeinu eta azti maltzurak uxatuz, baina Adegaxtok, ordea, baserritarrei gaizkia eragin nahi die.

Baina egun batean Adegaxto lasai-lasai lo zegoela Eguzkiren argiak itzarratu zuen eta beregana hurbiltzean bere begiak dirdiraz hasi ziren, ez zuen bere bitza osoan gauza ederragorik ikusi.

Egun horretatik aurrera leku guztietara segitzen zion Eguzkiri, ezin zuen ezer ere egin bera babesteko irrika saihesteko.

Beste egun batean...

Eguzkik zerbait arraroa sentitu zuen, norbait segituko balio bezala. Orduan, Adegaxto ikusi zuen zuhaitz baten atzean. Bere aurpegi goxoarekin harrিতa geratu zen, baina beregana hurbildu zen eta arrazoi jakin baten bila. Hizketan hasi eta egun osoa elkarrekin geratu ziren. Eta horrela gaua heldu zenean amodiozko istorio berri bat sortu zen.



Jainkoak honetaz konturatu ziren, unibertso izarrak, beste izaki mitologikoak, eta baita Amalur ere. Eta ez ziren oso pozik geratu.

- Beraien erruagatik unibertsuak leher egingo du -esan zuen jainko batek.
- Ez dakit nola egin duen horrelakorik nire alabak!!! -gehitu zuen Amalurrek.
- Baina ongia eta gaizkia batera badaude arazo larri bat edukiko dugu -izarrek.
- Dena dela, Amalur zureganako errespetu osoz, biek hil beharko dira arazoa erroteretik desagerrarazteko; bestela denok edukiko dugu arazoa! -esan zuen hurrena Gauekok.

Horretaz konturatu zirenean denak oso triste geratu ziren. Ez zuten inor hil nahi, baina ezer egiten ez bazuten denak hilko ziren.

Baina Eguzkik eta Adegaxtok asko maite zuten elkar eta ihes egitea pentsatu zuten, baina alferrik.

Horregatik, espazio ilunera garraiatu zituzten eta biak zulo beltz batera jaurti behar izan zituzten hilko zirela ziurtatzeko, ez delako erraza izaki mitologiko bat hiltzea, horrela izanik eskuak emanda jaurti ziren. Hil baino lehen hitz hauek esan zituzten:

- Lehen ongiaren eta gaizkiaren arteko gorrotoa, orain amodio mugagabea da -Adegaxtok.
- Bai halaxe da -Eguzkik.

Eta biek negar malko bat isuri zuten lurrera, eta mineral mota guztietako arroka zapal bat sortu zen eta inskripzio bat idatzi zuten negar malko horiek.

Hau dio:

“Maitasunetik gorrotora pauso bat bakarrik dago, hau esanda, maitasuna eta gorrotoa txanpon bereko bi aurpegiak dira”.



Egilea: Cristina Marcos Rivero

Adina: 13 urte

Herria: Gamiz-Fika

Iratxoan

mundua



Gamiz deituriko Bizkaiko herri batean bi neska alai bizi ziren: Ane eta Amaia.

Amaia eta Ane bi ahizpa baino gehiago ziren, bi lagun min.

Beti zeuden elkarrekin eta beraien artean asko laguntzen ziren.

Amaia oso abenturazalea zen; Ane, berriz, oso lasaia, baina abenturak ere gogoko zituen. Hamabi urte zituzten. Batzuetan oso desberdinak ziren. Amaiak oso nota txarrak ateratzen zituen, Anek laguntzen zion nota onak ateratzen zituelako.

Arratsalde batean, etxerako lanak egin eta afaldu zuten. Gaueko hamarretan ohera joan ziren. Anek eta Amaiak logela berean egiten zuten lo, baina beraiek, gainerako neba-arrebek egiten duten bezala, ez ziren borrokatzen.

Gau erdian, norbaitek leihoa jo zuela pentsatu zuen Amaiak, beraz, ohetik jaiki eta leihotik begira geratu zen. Ez zuen ezer ikusi, eta ohera sartu zen berriro. Bost minutu geroago berriro entzun zuen zarata hura, oraingoan Anek ere entzun zuen. Biak ohetik jaiki, leihora hurbildu eta leihoa ireki zuten. Ane beldur zen eta Amaia leihotik begira hasi zen. Orduan bai! Leihorearen aurrean zegoen zuhaitzean iratxo bat zegoen! Biak aho zabalik geratu ziren. Iratxoak agurtzeko keinua egin zuen eskua-ekin. Anek eta Amaiak berdin egin zuten. Bat-batean iratxoa hitz egiten hasi zen.

- Kaixo, zer moduz?

- Ondo, ni Amaia naiz; hau, berriz, Ane, nire ahizpa.

- Barkatu, ni ez naiz aurkeztu. Nire izena Gubli da.

- Kaixo, Gubli. Zer nahi duzu ordu hauetan? -galdetu zuen Anek.

- Berri bat ekartzera etorri naiz. Iratxoak desagertzeko arriskuan gaudela esatera bidali naute. Horrela guztiok



batera Iratxoen mundua salbatzea lortuko dugu. Gaur ez duzue klaserik, beraz, iratxoen mundura etorri zaitzekete. Horrela, nire lagunak ezagutu eta gure mundua salbatzeko zer egin behar dugun pentsatu dezakegu. Laguntzeko prest zaudete?

- Gu prest gaude! Ezta Ane? –dio Amaiak.
- Bai!
- Eskerrik asko neskak! Orduan etorriko zarete gaur gure mundura?
- Bai! –diote biak pozik.
- Aita eta ama ez kezkatzeko jarri notatxo bat.
- Ados. Oraintxe idatziko dugu.

Ohartxo idatzi ondoren leihotik atera ziren. Gublik iratxoen mundura igarotzeko ate sakratua erakutsi zien. Zuhaitz batean zegoen. Ate hori igaro ondoren, berehala heldu ziren. Hango mundua hemengoa baino ederragoa zen, desberdina. Hango munduan autoak kartoizko kaxak ziren eta hegan zihozazen. Ez zuten PSP, MP3... eta horrelakorik, beraien irudimena erabiltzen zuten eraikitzeko. Mundu horretan dena zen imaginazioa. Bertan txapekin jolasten zuten, hau da, joko sinpleekin jolasten zuten, beraiak asmatutako jokoeekin. Gublik bere etxera gonbidatu zituen. Bertako etxeak bereziak ziren, oso bereziak, perretxikoak baitziren. Hango mundua oso alaia zen eta ez zuten lanik egin behar, beraien etxean alboko basoetan batutako fruituak jaten zituzten eta.

Kaleak umez beteta zeuden, denak jolasean. Niri hor egotea gustatuko litzaidake! Eskolara ere joaten ziren! Bertako mundua, gure mundu honekin konparatuz, oso desberdina zen. Gubliren etxean egon zirenean, Gublik hau esan zien:

- Orain badakizue nolakoa den gure mundua. Oso ezberdina da.
- Bai, eta zoragarria!! Guk iratxoen mundua salbatu nahi dugu! –esan zuen Anek pozarren.
- Eskerrik asko! Orain zuen mundura itzultzeko ordua da, eta zuen lagunei irudimena oso garrantzitsua dela eta irudimena erabilia bizitza hobetuzko izango dela esateko garaia ere bai.

Egun batzuk pasatu eta gero, iratxoen mundua salbatzea lortu zuten beraien lagunei imaginazioa zein garrantzitsua zen azalduta.


Harrezkero iratxoen mundua ez zen desagertzeko arriskuan berriro egon eta poz-pozik bizi izan ziren guztiak!



Egilea: Irati Enzunza Mallona

Adina: 15 urte

Herria: Fruiz



Derrigorrezko bigarren hezkuntzako laugarren kurtso amaitu nuen, titulu ere eman zidaten, opor luzeak maitzen ari ziren, lagunekin egindako hainbat parranda luze eta dibertigarriak, mozkorren bat edo beste, gurasoekin eta Anderrekin Italian igarotako oporrak... iragana ziren jada. Aste pare bat falta ziren kurtso berria hasteko, batxilergoa, eta jada gelako lagunak ez nituen egunero ikusiko orain arte gertatzen zen bezala. Batzuek batxilergoari ekingo zioten hainbeste urte elkarrekin pasa genituen institutu berean; beste batzuk moduluren bat ikasten jarriko ziren; eta gainerakoak beste toki batera joango ziren ikastera, ondoko herriren batera gehienbat.

Ni azken multzo horretan sartua nengoen baina ez nindoan ondoko herri batera ikastera, maiatzean erabaki genuen bezala, Estatu Batuetara nindoan 1. batxilergoa egitera. Nire ingelesak nahiko maila ona zuen, "First" titulua atera bainuen aurreko kurtsoan baina hobetzeko asmoa neukan. Eta zer da urte bat Estatu Batuetako familia batean pasatzea baino hobea horretarako?

Lehenengo Estatu Batuetako zein aldetara joan erabaki genuen familiakoek eta nik, eta aurreragotik pentsatuta neukan moduan, urte osoa San Frantziskon pasatuko nuen, hau da, Estatu Batuetako mendebaldean.

Ondoren, familia bat aukeratu behar genuen eta hori zailagoa zen arren, emakume bat aukeratu genuen. Eileen zuen izena, 45 urte zituen eta ni baino urte bat zaharragoa zen seme batekin bizi zen, Josh. Senarra duela 14 urte hil omen zitzaion trafiko istripu batean.

Irailaren hasieran klaseak hasiko zirenez, abuztuaren 17an Madrilerako hegazkina hartu nuen Loian. Gogorra egin zitzaidan gurasoak, Ander (neba), lagunak... ekaina arte ikusiko ez nituela pentsatzea. Baina Madrilerako hegaldian lasaitu egin nintzen eta heldutakoan, bakarrik nengoen arren, lortu nuen San Frantziskora zihoan hegazkinean sartu eta neure lekua aurkitzea. Amari deitu nion momentu horretan berak eskatu zidan bezala eta hituago etxera heltzean ere berdina egin nezan eskatu zidan. Hamahiru ordu luze pasatu nituen hegazkinean pelikulak ikusi, ondoan tokatu zitzaidan neska nafarrarekin hitz egin, paseatu...

Azkenean heldu nintzen hiri famatura eta hainbat polizia kontrol pasatu ondoren, Mai-



der Arrizabalaga jartzen zuen kartel batekin aurkitu nituen nire amaren adin inguruko emakume argal eta dotore bat eta mutil ile beltz altu bat. Biak oso pozik zeudela zirudien eta beraiengana hurbiltzean amak musu pareta eta besarkada eta Joshek musu pareta eman zidaten. Autoa hartu eta etxera heldu ginenean, oraindik ere harrituta nengoen urrunetik ikusten ziren etxe orratz altuengatik.

Oso etxe handia zuten eta niretzako ohe handia, komun itzela, armairu ezin hobea eta

etxeko lorategira zuzendurik zuen leihodun gela utzi zidaten. Etxean igerilekua, sauna txiki bat eta mota guztietako aparatu teknologiko berrienak zituzten.

Lehenengo bi asteetan hirira bidaiak, erosketak eta berbaldi luzeak egin genituen elkar ezagutzeko. Ostean, institutura joateko lehenengo eguna heldu zen eta Joshekin batera joan nintzen bertara. Josh Espainian bigarren batxilergoa deitzen zaion kurtsoan zegoen eta jarraian medikuntza ikasteko asmoa zuen, amak egin zuen bezala.

Autobusetik jaitsi eta inoiz ikusitako instituturik handiena ikusi nuen. Batera sartu ginen bertara eta pelikuletako berdina zen dena. Joshek lagundu ninduen gelara eta 40 ingururantzako mahaiak jarrita zeuden arren, 10 bat baino ez zeuden bertan. Sartu eta berehala denak hurbildu zitzaizkidan mota guztietako galderak eginez eta neskato batek bere alboan jesarri nintekeela esan ondoren, horixe egin nuen. Denak oso majoak ziren eta institutura ezin hobeto moldatzen lagundu zidaten. Ikastea ez zitzaidan oso zaila egiten, Euskal Herrian ere 4 asignatura ingelesez egiten baintuen.

Familiarekin konfiantza hartuz joan nintzen eta lagun koadrila batean ere sartu nintzen. Denak oso ondo portatzen ziren nirekin eta ni ere beraiekin. Astebururo tokiren bat ikustera eramaten ninduten eta bestela nire lagunekin edo Joshen koadrilakoekin ateratzen nintzen buelta bat ematera, zinemara...

Dena hain zen desberdina! Halloween ere ospatu genuen eta Gabonak beste familia batekin pasatzea oso arraroa egin zitzaidan. Oso ondo pasatzen ari nintzen nahiz eta momentu txar batzuk ere izan ziren. Joshek pila bat laguntzen zidan. Oso ederra zen eta konfiantza handia geneukan elkarrekin. Nik dena kontatzen nion eta berak ere berdin. Lagun onak baino zerbait gehiago ginela uste nuen nik eta baten baino gehiagotan kateatu ginen, baina biotako inork ez zuen ezer seriorik nahi eta ondo konpontzen ginen.

Otsaileko bigarren larunbata izan zen dutxatik irten eta gelara sartzean, Eileen nire gelako armairua miatzen aurkitu nuenean. Zertan zebilen galdetu nion eta hautsak kentzen zebilela erantzun zidan. Baina nola zen posible gaueko zortzietan hautsak kentzen egotea, normalean goizeko lehen orduan garbitzen baitzuen etxea? Gainera inoiz ez zuen ikusi neure armairuan hautsa kentzen. Zertan ibili ote zen? Armairua osorik begiratu nuen eta ez zitzaidan ezer ere falta. Zer dela eta orduan Eileen nire gelan?



Afalorduan ez genuen horretaz hitz egin eta hain nengoen nekatuta non egun hartan hamarrak baino pixka bat arinago ohean sartu nintzen. Ametsetan nengoela, bat-batean esnatu eta auto hotsak entzun nituen. Goizeko bostak eta laurden ziren eta kontuz-kontuz gortina ireki nuen eta polizia auto bat ikusi nuen. Momentu horretan Eileen autoan sartu zen bi poliziekin batera eta Joshek amari musu bat eman eta etxean sartu zen berriro. Autoa joan egin zen eta Josh eskaileretan gora zeto-rrera entzutean ohean sartu nintzen berehala bera konturatu ez zedin ni izarrik nengoela. Gauean ez nuen lo askorik egin eta hala eta guztiz ere, ez zitzaidan ezer bururatzen gertatutakoa azaltzeko. Zerikusirik izango ote zuen Eileen nire armairua miatzen ibiltzeak orain poliziek beraiekin eramatearen kontuarekin? Azalpenen bat behar nuen.



Zazpiak eta laurden segituan iritsi ziren eta ordura arte goizero Eileenek esnatzen ninduen arren, egun horretan Josh hurbildu zen gelara ni itzartzera. Loaren plantak egin nituen eta musu bat ematean begiak ireki nituen. Jantzi, ohea egin, orraztu eta gosaltzera jaitsi nintzen. Joshek bion gosaria prest zeukan jada eta ama egun hartan lanera arinago joan zela esan zidan, analisiak egin behar zituela eta, lanean hasi baino lehen. Egunduz gurtia pentsatzen igaro nuen baina ez zitzaidan inolako irtenbiderik bururatu. Ez nion inori ezer ere kontatu.

Eileen betiko orduan itzuli zen lanetik, sei eta erdietan. Ea berarekin hitz egin ahal nuen eskatu nion eta baietz erantzun zidan, inolako arazorik gabe. Eseri ginen, bada, sukaldeko mahaian, eta armairuan ez zela hautsa kentzen ari eta poliziarena ikusi nuela kontatu nion. Gorri-gorri jarri zen emakume gaixoa eta egia osoa kontatuko zidala zin egin zidan baina inori ezer ez esatekotan. Jada konfiantza nahikoa hartuta genuenez, dena kontatzen hasi zitzaidan:

“Zuri bidali nizkizun paperetan duela 14 urte senarra hil zitzaidala jarri nizun baina dena gezurra da. Nire senarra ordutik San Frantzisko alboko kartzela batean dago preso, us-tezko hilketa baten ondorioz. Ni ziur nago bera ez zela izan hiltzailea eta berak ere hala dio. Baina norbaitek bere burua salbatzarren nire senarrari jarri zizkion autoan hildakoaren odol arrastoak eta fabrika berean lan egiten zutenek, auto guztiak miatu eta odol markak aurkitu zituzten. 15 urte eta erdiko kartzela-zigorra ezarri zioten, eta harrizkero, hilean behin senarra bisitatzera joaten gara Josh eta biok goizeko ordu horretan, hau da, ni lanean sartu baino ordu bi lehenago. Hilabete honetan ordea, ni bakarrik joan naiz zu etxean bakarrik ez uztearren eta zu hemen zaudenetik txandakatu egiten gara biok hile batean Josh eta bestean ni joateko. Orain arte gure gezur guztiak sinistu dituzu baina atzo harrapatu ondoren, egia kontatzea zen onena. Gainera polizia etortzen zaigu etxera bila, guk horretarako ordaintzen dugulako.

Zure gurasoei eta zuri ez genizuen ezer jarri paper hartan, senarra kartzelan dagoela esan bagenizue, beharbada ez zelako hona inor etorriko. Badakigu gezurretan ibiltzea ez dela ona baina norbait etxera ekarri nahi genuen senarraren hutsunea pixka bat estali eta familiako beste kide bat izango balitz bezala maitatzeko. Eta hori zeu zara. Zure armairua miatzearena, aldiz, zure hobe beharrez egin dut. Gaur konturatu naiz bertan gordeta

nuela nire senarrarekin duela pare bat urte ateratako argazki koadro bat. Bertan data eta gure izenak jartzen ditu eta hura aurkituko bazenu, senarraren izena eta Josh eta nirea badakizkizunez, konturatu egingo zinen nire senarra ez dagoela hilda. Horregatik, zu dutatik atera baino segundo batzuk lehenago, nire gelan sartu dut argazkia eta berriz ere zure gelan sartu naizenean, armairuko atea ixteko asmoz, zu sartu zara.”



Aho zabalik geratu nintzen hori entzutean eta ordutik aurrera nire benetako amaren antzera maite izan nuen. Joshen aita bisitatzerare joan nintzen baten kartzelara, eta oso ondo hartu minduen. Oso gizon alaia, sinpatikoa da eta nik ere ez dut uste horrelako ogi puska batek pertsona bat hil ahal izan duenik.

Ordutik aurrerako hilabeteak normal pasatu ziren eta maiatza heldu zenean nota onekin bueltatu nintzen Joshekin autobusez etxera. Beste bi aste eman nituen beraiekin. Aste bi horiek oso ondo aprobetxatu genituen Joshen eta nik eta beharbada elkar ikusiko genuen azken asteak zirela jakinda hainbat pasiera, hizketaldi, musu... egon ziren.

Kurtso luze eta ahaztezin hura bukatua zen jada eta etxera itzultzeko ordua iritsi zen. Negar piloa egin nuen hango lagunak, gelakideak, irakasleak, Eileen eta Joshen familia... agurtzean. Baina batez ere, kurtso oso batez nire ama izan zen Eileen eta nire neba eta lagun izan zen Josh agurtzean.

Euskal Herrira heldu nintzenean, aita, ama eta Ander zeuden Loiu nire zain. Dena kontatu nien eta lagunekin ere elkartu nintzen. Guztiek zuten zerbait kontatzeko baita nik ere. Hurrengo kurtsoa beraiekin pasatuko nuen berriz ere eta ez zen pelikuletan bezalako institutua izango baina berdin zitzaidan. Uda osoa geneukan elkarrekin egoteko eta herri guztietako jaietara joateko. Orduan konturatu nintzen benetan asko maite nauen jendea daukadala alboan.

Beste alde batetik, Josh eta Eileenekin berriro elkartu ginen gure etxeko guztiok handi hiru urtera. Eileen senarra jada aske zegoen eta hara oporretara joatea erabaki genuen. Hilabete osoa pasatu genuen han eta Estatu Batuetako hiri garrantzitsuenak bisitatu genituen. Bi familiek batera pasatutako opor zoragarriak izan ziren eta ikastera joan nintzen urtean eginiko lagunekin ere egon nintzen. Ander ere oso ondo konpondu zen Joshen eta hura izan zen elkar ikusi genuen azken aldia. Ordutik urte bete pasa da eta San Frantziskon oso ondo pasatu nuen arren, Euskal Herrian oso pozik bizi naiz eta hemen ere badago asko maite dudana jendea.



V. Kategoria
(18 urtetik gora):

Egilea: Estibaliz Hernaez Laviña

Adina: 40 urte

Herria: Gamiz-Fika

“COCA COLA” BOTILA BATEN GORABEHERAK

Astelehenen baten, goizeko zortziak ziren plastikoak eragiten zituen lantegi batean. Langile batzuk heldu ziren. Kaleko arropak aldatu eta lan-jantziak jarrita, lantegiko pabilioira abiatu ziren. Pabilioian isiltasun eta hotz handia nabaritzen zen, asteburu osoan hutsik eta makinak geldirik egon zirelako. Argiak piztu eta aste berri bat hasten zen. Zein izango ote zen aste berri hartako ekintza? Plastikozko “Coca-cola” botilak egitea.

Langile bakoitza bere lanpostura joan zen eta makina piztu zuen. Botila bat lortzeko lehenengo eta behin plastikoa tenperatura altuetan jarri behar da plastikoa urtu arte. Urtzen denean makinaren barruan airea puzten da eta molde baten bitartez hainbat botila berdin jaiotzen dira, bata bestearen atzetik.

Makinatik irten eta lehenengo momentuan botila bat konturatu zen beste mundu batean zegoela.

-Non nago? Zein leku da hau? Bat-batean, zergatik dago hainbesteko hotza? Hor barruan hobeto nengoen... -pentsatu zuen zinta garraiatzaile baten gainean zihoan bitartean.

-Bakarrik nago, beldur naiz, ezin naiz mugitu...

Eta esaldia amaitu baino lehen esku bat nabaritu zuen bere gainean, eta barrua betetzen zitzaiola beste makina baten gainean zegoen likido ilun batez.

-Zer da likido ilun hau? Ni ez naiz egarri izan! -kexatu zen.

Hurrengo segundoetan, txano gorri bat jarri zion langileak eta kutxa baten barruan sartu zuen. Botila. Jada ez zegoen bakarrik, beste botila batzuek inguratuta zegoen.

-Oso pozik nago! Ez nago bakarrik! -pentsatu zuen.

Baina bere inguruan ondo begiratu zuenean, beste botila guztiak bera bezalakoak zirela sumatu zuen. Bakarrik ez baina bereizirik ere ez. Kontrako sentimenduak zituen bere baitan momentu hartan. Alde batetik poztasuna bakarrik ez egoteagatik eta bestetik tristura berezia ez izateagatik.



Horretan zegoela, langile batek Botila zegoen kutxa hartu zuen eta pabilioiko izkina batera eramane zuen beste kutxa guztiak bete arte. Egun horretako lanaldia amaitu ostean, langileak pabilioitik joan ziren, makinak eta argiak itzali ostean. "Coca-cola" botilak han geratu ziren.

-Gaua etorri da!!! Ez dut ezer ikusten!! Hau hotza!! –pentsatu zuen botilak.

Egunak pasatu ziren eta Botila triste, asperturik eta mugitu barik geratu zen pabilioiko izkina batean. Egun batean, bere tristura eta asperdura amaitu egin zen. Kamioi handi bat etorri zen lantegira eta Botila eta beste botila guztiak kamioian sartu zituzten supermerkatu handi batera eramateko.

- Mugitzen ari gara. Nora eramango ote gaituzte? Behintzat, inguru desberdina ikusiko dugu –esan zion bere buruari.

Lau ordu geroago, makina txiki batez, kaxa guztiak kamioitik atera eta biltegira sartu zituzten. Eta gaua heldu zen.

- Berrito hemen, inguru berdina –pentsatu zuen Botilak. Eta isiltasuna, asperdura eta tristura Botilaren sentimenduen artera bueltatu ziren.

Egunaren lehenengo argia supermerkatuko pabilioian sartu zenean, Botilaren itxaropena berrito piztu zen.

- Badatoz langileak! Agian beste leku batera eramango gaituzte! -oihukatu zuen.

Eta Botilaren desioak egia bihurtu ziren. Langile batek, makina baten gainean, kaxa batzuk hartu zituen eta supermerkatu barrura sartu zituen. Hirugarren lerroan beste langile bi zeuden "Coca-cola" botila guztiak zegozkien apaletan kokatzen.

Botila oso pozik zegoen, halako leku polita, alaita eta dibertigarrian egoteagatik.

- O!, O! ez nuen honelakorik espero!! Zenbat gauza desberdin! Zelango kolore politak!! - esan zuen ilusioz beterik.

Mutil bat hasi zen botila guztiak kokatzen, bata bestearen alboan, eta haien artean Botila jarri zuen. Pozik zegoen inguru hori bere gustukoa zen eta. Baina egunak joan egunak etorri inguru berdina izaten jarraitu zuen.

Erosleak Botilaren apalera hurbiltzen zirenean, Botilak erantzunik gabe oihukatzen zuen:

- Mesedez, hartu!!! Zurekin joan nahi dut! Mesedez!!

Erosle bat eta beste bat, egun bat eta beste bat, tristura eta asperdura Botilaren sentimenduak gidatzen hasi ziren berrito.



- Bai bizitza triste eta aspergarria "Coca-cola" botilarena!!! Zer egiten dugu bizitza honetan? Zertarako bizi?

Egun batean, Botilak benetako bizitza bat izateko esperantza galduta zeukala, mutiltxo bat bere aurrean agertu zen. Bere amarekin erosketak egiten zegoen eta "Coca-cola" bat nahi zuen.

- Ama, "Coca-cola" bat erosi, mesedez! –esan zion mutilak amari, botila handiak seinatalatuz.

Botilaren aurpegia alaitu egin zen hitz horiek entzun zituenean, bere bizitza aldatuko zelakoan.

- Ez. Nahi baduzu, botila txiki bat hartu –esan zion amak.

- Ez, ama. Handia hartuko dugu eta horrela guztiontzat izango dugu –eskatu zion bere amari-. Mesedez,...

Azkenean amak baietz esan zion eta mutilak botila bat hartzera zihoala Botilaren aurpegia alaitu egin zen.

- Ni, ni, ni !! –oihukatu zuen Botilak mutilak entzuteko nahian. Berrito errepikatu zuen Botilak.

- Ni, ni !! Hartu ni! –Eta bat-batean, mutilak entzun izan balu bezala, Botila hartu zuen eta karroan sartu.

Botilak ez zuen sinesten. Bera aukeratua izan zen beste mila botilen artean. Inoiz ez zen hain pozik egon. Aukeratu izan zen. Hori zortea!!

Amak eta mutilak beste gauza batzuk ere karroan sartzen jarraitu zuten. Botilak gero eta leku gutxiago zeukan eta konturatu baino lehen beste gauza batzuek estalita aurkitu zen. Hala eta guztiz ere, oso pozik zegoen aukeratua izateagatik.

Etxera heldu zirenean, Botila armairuaren barruan sartu zuten. Berrito iluntasuna, bakardadea eta tristura bueltatu ziren Botilaren sentimenduetara.

Egun batzuk geroago, mutilak Botila hartu zuen familiakoekin artean edateko. Botila oso pozik jarri zen berrito, armairutik irteteagatik. Familiarekin egongo zen eta ez bakarrik armairu ilun baten barruan.

Mutilak botilari tapoia kendu zion eta barruan zeukan gasa irten egin zen.

- O! Zelango sentsazio ona! –pentsatu zuen Botilak. Eta esku batzuetatik beste batzuetara pasatzen hasi zen, gero eta likido gutxiago zuela barnean.

- Ze dibertigarria den hau! luuuuuuuu....!!! –pentsatu zuen Botilak.



Bazkaria amaitu zutenean “Coca-Cola” Botila hutsik zegoen eta zakarrontzira bota zuten. Zaborren artean dibertsioa amaitu egin zen Botilarentzat.

- Orain zer gertatuko da? Nora eramango ote naute?

Berak ez zekien zein izango zen bere hurrengo helbidea. Baina egun horretan mutilak zaborren poltsa hartu eta kalean utzi zuen zabor-kamioiak hartzeko.

Gau hartan, kamioia etorri zen eta konturatu baino lehen, Botila kamioiaren barruan zegoen, bueltaka eta bueltaka.

- Bai dibertigarria!!! –pentsatu zuen- Gehiago, gehiago !!

Baina bere bizitza osoan zehar gertatu ohi zen bezala, orduan ere dibertsioa berehala amaitu zen. Beste zaborren artean kamioitik atera eta zabor-mendi handi batzuetan abandonatu zuten.

- Hara! Beste leku berri batera ekarri naute... pentsatu zuen xalotasunez.

Berak ez zekien hura bere azkeneko helbidea izango zela. Bizitza tristea “Coca-Cola” Botilarena!!



Egilea: Alberto Narbaiza Etxeandia

Adina: 62 urte

Herria: Gernika

GIZONIK TREBEENA PERRETXIKOTAN

A zelakoak garien euskaldun batzuk baina, a zelakoak!! Egin be, gauza bakoitzik egiten dogu...!!

Oraingoan kontatuko deusuedana, taberna batean entzunda daukotzat gizon bateri, eta berari jazorikoa ganera:

Beren gazte denporan, eta baserri auzo bakarti batean bizi zala, negu aldietan eta beste jatekorik ezean, gurasoek aginduta, etxeko ganadua mendira eroaten eta eurak zaintzen joan behar izaten ei eban, hango bedar latz eta arta zaharren orriakaz haren sabelak betetako, eta bera zaku bat lepo ganean eta urretz makilea eskuetan atzetik, etxetik hurrean egoan basora.

Aberatsak ei ziran berezi mortuak ordukoetan, emonkorrak. Urte guztirako egurrak behe surterako emonez, baita lanabesetarako kirtenak, itaurrerako akuiluak, urkuluak, adakiak, buztarriak egiteko, teilaturako hagak... ira igarrak azpigarrirako kortako patarientzat... eta horreek denak ezeze norberak jateko be asko eta ugari emoten eutsiezan bertakoei; San Migeletako gaztain gorringoagaz hasi eta oskilasoaren txitak udabarrian eta oilgorrak, basoilarrak, okilak, egaberak... negu aldian eurori zeregaz tirokatu izan ezker; udan arrainkariak errekatxu ur hotz arin gardenetan egun argitan, edo txangurroak eskuz harrapatzeko gauetan, ibai eta erreken zaintzaileengandik gorde behar zala badaezpada.

Baina elikadura horreen dan-danen gaintetik eta gauza bitxiena etxean jateko ala saltzeko azokan, perretxikoak zituezan, eta ontto horreen truke hartutako txanponakaz txin-txin hots ederrak ateratzen ei ebezan sakel barrutik batzuetan biltzaile zoriontsu batzuk beste askoren bekaizketarako.

Basoaren lur hareek, umel eta ospelak, eguzki goiztiarren laguntasunagaz harelako fruitu apartekoakaz horniduten eutsiezan, eta eurok topetan jakin izan ezker, bertan eukiezan ia urte osoan zehar; eta jaki haretarik apur batzuk baino ez ebazan biltzen, ezin hobeto ezagutuak eukezanak, esku bateko atzamarrakaz kontatuta mota ezbardintsuak, gehiagorik ez, azpi eta gane eurori ondo begituz gero, usaindu eta mihingainagaz apur bat miazkatuz banan-banan batzerakoetan euron jan ahal izanaz egiaztatzeko. Enparuak bareentzat.



Beren aititari esker ikasita eukazan berak, zelan, non eta noiz agertzen ziran, erne toki bereziak, eguzki ala itargiari edo euriagaz trumoi eta inetasi ostetan erreparatuz,

haize epelari ere bai, euri lanbroari, iluntze gorriari... Zelan gorde herriko mendizaleen begietatik, susmo txikiena be izan ez eukien, galdu eragin norberak oinekin itxitako seinaleak, eta abar eta abar. Hango basoan ez egoan gogaitzeko astirik, biziak beterik egoan. Patari asko eta askorentzat ezkutu lekua zelako: azkonarrak, lukiak, basahuntzak, basurderen bat... bertako lurgainaren nagusiak, eta arrano belatzak, erroiak, mikak, mozoiloak... hegazti hondakarien artean, goietan.

Gauaz, hobe zan Baso Jaunari berenak egiten laga hango erresuman eta gurelakoak geure aterpeko habiatara lo egitera joan.

Eta hemen hasten dira kontuak eta komediak. Ba, ei egoan euren auzoan berelako beste mutiko bat gauza berbera egiten ebana oihana hartan, zeren danantzako egoan janari eta ganera ekandu bardineta ikasita egoalako orduko gazteria.



Dana dala ez ziran egundo batera joaten, adiskideak izan arren; bakoitzak eukazan bere toki sekretuak, harek lekuak norbere lagunik handienari be ez jakozan jakitera emoten. Hori lehenengo agindua zan, inogaz ez fidatzea, bestela kaput! Agur zure bilketa onuragarriari.

Batzuetan asko eta besteetan gitxiago, baina beti soineko txapela erdi beterik zer edo zegaz etxerakoan, eta afaritan ahora eroateko arrautza iribioa eta berakatz erreatan prestatuta, aitarene batean iruntsi, begiak zuritan ipiniz goialdera begira ahokada bakoitzean, asko estimetan dan gauzari ohorea egiten jakon legez, eta ogiaz koipetzuten eta koipetsuten erreteiluari harrikoa zetan egin beharrik ez ebela eduki. Gitxi esan leikiokena zan hori.

Gaztainadi edo harestietan orain, pagadian gero, edo lizartzan, pinudietan, haltzagetan hurrengoan... haien arbola orpo guztietan arakatuten eben, orbel eta abarrak alboratuz, goroldioak aztertuz... eta gaitzerdi baserri etxea hurrean ebalako, bestela sarritan galduko ziran, behe eta behera begiratzen ordu eta orduetan egoten ziran-eta, ez ekiela goiz ala arratsalde zan, ezta non ziran be. Halanda guztiz be, beste zentzun bi gehiago gitxienez behar izaten ebazan erabili, zuhur eta adi begiak noiz behinka zeharkatuz azpitik txordoak legez, eta belarriak erne oinen zapalketa antzeko zarataren bat entzuterakoan, zeren halangoetan danak ebazan areriotzat eta lagun gutxi! Esaten dana holango egoeran.



Urriko onddoak gozoak izango dira, azaroko urretxak, gibelurdinak edo arrautza perretxikoak baita be oso estimatuak, baina martian udabarriko ziza zuriak, harek bai, harek ez eukien parekorik! Erregeak benetan eurok! Eta merkatu plazan edo tabernetako mahaietan aho kuxkuzeroak eukiten ebezan itxaroten, eurok gaitik ordaintzeko diruari begitu barik, sasoiak ekarrenak zirelako. Hau izaten zan ba urte sasoi onuratsuen diru apur bategaz etxean laguntzeko.

Lehenago aipatutako beren auzo mutil horrek Jainkoaren graziaz beterik egongo zan ezpai barik, zeren, urte osoan zehar halakoak eta osterantzekoak be ugari batzen ebalako, eta ganera gure gizonak baino mota anitz ezbardinetaoak be bai.

Ez zan makala mutil hori beren basoko barazki bilduketan, ez!!! Danen ahoan egoten zan bere jarduera arrakastatsua zala eta; entzute handikoa zan inguruetan, bera zan danen artean txapelduna, eta beren lehiakideak nahiz eta beren beste izan nahi, danak geratzen ziran txiki bere aldean holango ekinetan.

Amildegietan? Estratzetan? Kobazulo barruetan? Lubetan? Sakostietan? Troketan? Ota edo inarra artean? Ha zan misterioa inork ezin ebana asmatu!! Dana dala, halan edo holan, sorgin bat izan ala ez, mutil harek hango herriko guztien danak baino askoz gehiago jakinaren gainean egoan eta hori ezin eben inolaz ere ulertu, holan zan eta kittu!! Hemen zorteak ez dauko lekurik: jakin dakizu ala ez!

Urte apurren batzuk geroago, matrail eta sudurpeak bizar antzekoakaz ia baltzitzen hasi jakiezala, Ameriketarako bidea hartu eben auzo berbetako eurok biek artzaintzako lanetan, urregorritzko txanpoi ederrak oradinduta gobernuari soldadutzako loturatatik aske izateko berton "zortzi" jantzita joateko sasoian.

Mundu Berriko mendi haretan urte mordoan emon eta gero, burua urdintzen ebala, nahikoa zala eta, gure kontalariak sorterrirako bidea hartzea erabagi eban, guraso zaharrakaz bizi eta etxeko ekinetan jarraitzeko asmo zintzoagaz. Beren adiskidea barriz, bertako andraren bategaz lotu egin ei zan, eta beren antxinakoen herrira itzultzeko asmorik ez ei eban agertu, hango bertako bizimodu eragaz eginda eta lur haretan geratzeko asmoz betirako.



Orduan gure gizonok, alkarreri azken agurra eta besarkadea emon aurretik beste mundurarte ez zirela barriri ikusiko eta, Ameriketara geratzeko zanari begi bietara samur-samur begituz, itaundu egin eutson beren lagun zaharrak, ea berak ondo gordeniko sekretuak, onddo eta perretxikoenak argituko baeutsazan berari, aurrerantzean galdu ez dagiezan, holan ba berak zainduko ebazala eta, baita danen belarrietatik ixilpean gordeko ebazala eta, belaunaldi bakoitzean euren etxeko bateri baino ez eutsela jakitera emongo eta; hori danori Jainkoaren izenean zin eginez eskoiko bost atzamarrak bihotz parean ipinita.

Badakizue zer esan eutson beren nekeetako lagun minak, jaio eta gehiago alkarren ondoan bizi izandakoak eta handik gitxira bananduko zenak betirako, besarkadak eta lepokada emon eta gero?: "Horrek gauzak lagun, ez deusudaz esango ez zeuri ezta inori be, ez orain ez gero, ezta heriotzako orduan be". Han amaitu ziran betiko ba, euren arteko autu-matuak.

Eta holan ba, beragaz eroan ebazan beren zorroneko sekretuak, hara inor itzuli ez dan lekura, haraxe bai.

Agur lagunok ba, eta orain atara kontuak zeuok, ea guzurre bada hasieran esan deusuedana: "A zelakoak garen euskaldun batzuk baina! A zelakoak!".



ANTOLATZAILEAK:



ARRIETA • FRUIZ
GAMIZ-FIKA eta MEÑAKAko
EUSKARA ZERBITZUAK
ZURE ESKU



**FRUIZKO
UDALA**



**GAMIZ-FIKAKO
UDALA**



**MEÑAKAKO
UDALA**



**ARRIETAKO
UDALA**

LAGUNTZAILEAK:



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

ARRIETA: 94 615 30 65
FRUIZ: 94 615 32 10
GAMIZ-FIKA: 94 615 31 14
MEÑAKA: 94 674 21 01